

“HATSAREN POESIA” Nafar Poesiaren I. Biltzarrean

Auxtin Zamora
Juan Karlos Lopez-Mugartza

Auxtin Zamora idazle eta HATSAREN POESIA aldizkariaren sortzaile, bultzatzaile eta zuzendariak Nafar Poesiaren I. Biltzarrean erran zituen hitzak biltzen dira artikuluhonetara. Halaber, Juankar Lopez-Mugartzak biltzar berean HATSAREN POESIAri buruz aurkezturiko txosten zuzendua eta handitua gaineratu da, egun hartan aldizkari honen hainbat datu tekniko eta zenbait estatistika garrantzitsu plazaratu baitziren.

Hatsaren eskutik, Auxtin Zamoraren sarrera hitzak

«Egun on denoi. Lehen lehenik, Nafarroako Poesia Kongresu hunen arduradun guziak bihotzetik eskertu nahi ditugu pentsatzen dugulakotz, segur, asko lan galdetu duela egun hunen egituratzeak, bai protagonista guzien, momentu berean eta leku berean elkartzeak. Mila esker beraz egun hunen jarreran ezartzeko, beren izerdia botatu duten denoi. Eskatua zaut gaur nunbait, Euskal Poesia zertan den azaltzea. Holako galdera bati ez dugu pretentsiorik erantzun baten emateko, nehorik ez dakielakotz nola soziologikoki poesia mundua neurtzen den, zer kriterio-mikroskopioekin behar diren hain subjektiboki jalgitzen diren olerkarien obrak, errealitate zehatz batean sartu. HATSA euskal poesizale elkarteak, poesia arloan bizi duen esperientziaren bitartez, dugu bakarrik ikuspegi partzial bat azalduko.

HATSA elkartearen helburuen *lehen oinarria* finkatzen da: hatsa hartze, bizidun guziek egiten dugun egintza fisiologiko beharrezkoaren etsenpluan. Hatsa hartzen dugularik, denona den airetik dugu oxigenoa irensten, eta nahi hala ez, berriz denona den aireari itzultzen... Hartu airea itzultzean, gure barneko zerbait, ihintz fin bat, bustidura ezkutu bat espazioari utziz. *Berdin, Euskal gizarte osoarenak diren hitz, senti-*

men, pentsaerak ditugu geuretzat hartzen eta poesiarekin batean, geure berezitasun eta sormen suertedun zerbaitekin gizarteari oxala ordaintzen!

Bigarren oinarria. “idazleak, bere idatzien tokia nunbait behar du aurkitu”. Olerki idazle norberak badu zerbait bere barnetik azaltzeko. Ez dira guretzat formulazio “egokiak” garrantzitsuenak, baizik, idazlearen tripako minak, bere burutazioak eta bizian sakonki sentitzen dituenak. Horra zergatik, nahi dugun olerki idazle bakotzak (nornahi izan eta ere, amona, aitona, umetxo, heldu, pertsona ezagutua edo ez ezagutua), denok, nunbait, gizartearen aurki dezan liburu bat bere barruko oihartzunak idazteko.

Hirugarren oinarria. Nahiz ahal bezain bat Olerkariaren idazlanak argitaratu, ez gira diruaren dinamikan sartzen (ez gira komertzialak)... Gure ahale arabera egiten dugu (mila euro eskuratu, mila euroren liburu argitaratu!). Gure liburuen gehiengoa, dohainik, Biblioteketetan banatzen dugu, dakigulakotz, poesiaren irakurle guzietan ez dituztela liburu dendetan saltzen diren olerki liburu guziak erosten ahal.

Manera esplizitu batean ez gira hala ere sartuko guttitasunaren zinkurinen negarretan, guk erranen ginuke zabalki, poesia, beste munduko hizkuntzetan bezala, euskaraz ere kale ezkin, basoetako herri oihan guzietan aurkitzen dela, denboraz ahoskatua baldin bazen orai gero eta gehiago idatzia da, Nafarroan bezala beste euskal eremuetan, bereziki, azken 40 urte hautan, euskaraz gure umeak alfabetizatuak direlaketz bai eta geroz eta gehiago ez direlaketz helduak ere, erlijio sentimental ideologiko filosofiko poesia normalizatu zapaltzale baten menpe. Euskaraz –beste munduko populuetako mintzaira guzietan bezala– edozoin motako poesia (soziala, filosofikoa, intimista, intelektuala, herrikoa eta beste hainbat motako tankeretan) idatzia da. Poesia Aristotelen poietikaren erreferentzi idealistak, edo Heideggerrek erakutsi, sortutako obrak eta sorkuntzalariaren artean jaigutzen diren eraginak, azaltzen dira ere euskal olerki idatzietan. Bainan garai huntan, iduritzen zauku, oraiko olerkariak nahi dutela formalismo eta taburik gabe idatzi, eta, idatzi, bereziki espre-satur, sekulan ez bezala, libertateak duela gehienik, bere edozonezko forma guzietan, poesiari definizio hoberena ematen; eta gaur egun, hori literatura orokorrean ez bada nabari, ziur gira, itzalean, libertate horren erroak ari direla bide egiten, froga hor dugu, HATSAREN POESIA aurtengo olerki bilduman 98 olerkariak parte hartu dute, bai eta elgarrekin juntaturik, 200 bat haur eta gaztetxoek taldezka. Horien erdian, Nafarroan garenaz geroz, izendatu dezazkegu: Juankar Lopez-Mugartza egun hunen arduradun sutua, bai Joakin Balentzia Tirapu, Asier Larretxea, Amaia Amilibia, Biurdana eta Jaso ikastetxeko olerkari gazteak. Euskal poesia alorrean, itxaropen haundi bat badugu.

Ez dezagun utzi egun hau iragaitera, bihar sobera berandu izango da, lurak bere itzulia egin izanen du eta ez gira orhoituko gaurko eguzkiaren izpiak zoin hunkigarririk izan ziren ere.

Idatzi eta oihukatu dezagun, sentimenak, edertasuna, gure etxetako teiltuak, gure kotxe erraldoiak, gure burtsako diru zamak baino azkarragoak direla. Olerkariak dakite, eguzkiari oraino so egiten... beren zeruko eta infernuko oihu argiek zeta-

beztatzen dituzte, esklerosis batean, itzalean, lotan diren sentimen egozentrikoak, bai aspergarriak diren gerontokratoen lelo errepikatuak. Beren erranak, azkenak edo lehenak, ez dira berriz erranen, bakotxaren hitzek eta zirrarek ez dute beste sinonimorik.

Errealitatea hilotzu ez dadin, higitzen diren eta duten hitzek dute eguzkia agurtzen. Ikasteko beharrezkoa baldin bada hitzen errepikatzea, hainbat baitezpadakoa da bihotzarentzat, hitzen dantzan jartzea. Entzun idatzien atzean diren oihu libreak, eta eguzkiari so egin... hor da... poesia...»

Auxtin Zamora Hatsa elkartearen historia laburraz

«Hatsa Elkartea» 1989 urtean sortu zen. Hastapenean bere helburua hau zaukan: «Poesiaren munduan, artistiko espresioaren bitartez norberak bere buruaren ezagutztea.»

Edergintza eta olerki idatzien erakusketak bultzatu nahian Lorearen Poesia lematzat hartuz, prentsan, nahi zuten artista guzici parte hartzea eskatu ondoren lehen ekitaldia egin zen:

1991ko apirilaren 6an Senpereko Elkartetxean eta gero urte berean ekitaldi bera egin zen Kanbo, Donibane Garazi, Donibane Lohizune, Sara, Bidarte, Haltsu herrietan, aldi oroz, eskualdeko artista askoren sorlanak bilduz. Sail hori segitu zen modu berean:

1992 urtean “Zuhaitzaren Poesia” lemarekin,

1993, “Uraren Poesia”,

1994, “Ametsaren Poesia”,

1995, “Emaztearen Poesia”,

1996, “Bihotzeko Poesia”.

1997an beste sail bat hasi zen “Ostopeko artea” deitua. Urdazuri ibaiako artista guzieri, lehenik bi egunez eta gero 8 egunez idekia. Hunek 9 urte hautan oraino irauten du.

1999 urtean, ikusiz euskarak poetika munduan zoin funts haundia zaukan, eta denbora berean bere baztertze eta galtze dramatikoa sentitzen ginuelakotz, gure ardura osoa, euskaraz espresatzen den olerkigintzari emaita erabaki genuen

Lehen HATSAREN POESIA eguna ospatu zen Oxtikenean Senperen 1999ko martxoaren 21ean, udaberria egunean. Hor 40 bat olerkarik aurkeztu zuten “HATSAREN POESIA 1999” deitu olerki bilduma eta bazkari bat elgarrekin egin. Hor ziren olerkariek bat bederak irakurtu zuen olerki bat eta asko harreman pertsonal sortu ziren.

Geroztik 8 urtez segidan, Hatsa Elkartearentzat, apirilaren lehen igandea, ohidura bat bezala bihurtu da Poesiaren besta ospatuz bai olerki bilduma bat ahal bezain bat olerkarien idatzi batzuk aurkeztuz. Aurten 2006an, 98 olerki idazleek parte hartu dute bat bederazka eta 200 bat haur eta gaztetxoek taldeka.

2002 urtean sail berri bat Oñatin hasi ginuen, Ikastetxetako gaztetxoek baitan, olerkigintza bultzatu nahian, eta geroztik urtero olerki ikasle gaztetxoek liburu bat agertzen dugu. Urtero ere ikastetxeen parte hartzedunen zerrenda haundituz doa: Oñatiko “Elkar Hezi”, Tolosako “Laskorain”, “Orixe” eta “Hirukide”, Iruñeko “Biurdana” eta “Jaso”, Baionako “Bernat Etxepare”:

2003 urtean, buruilean, *Maiatz* elkartearekin batera “Poesia abartxoetan” ekitaldi poetikoa bultzatu ginuen hor ondoko hauek parte hartu zuten: Daniela Albizu, Piarres Aintziart, Eneritz Abruzza eta Zirrara taldea, Mikel Asurmendi, Gerardo Markuleta, Maripi Solbes, Gabriel Korta Rekarte, Iñaki Basterrika “Paku” gitarristarekin, Auxtin Zamora, Luzien Etxezaharreta, Pantxix Bidart, Koldo Ameztoui, Mikelazulokoen “Eskubiko pareta” errezitaldia (Javi Barandiaran, Urtzi Urkizu, Asier Sarasola, Idoia Beratarbide eta Oier Guillan).

2005 urtean “Maite ditugun olerkariak” sail berri bat hasi dugu, urtean zehar –hilotzeko azken larunbatetan– olerkari bat gomitatuz. Honekin, oinezko ibilalditxo bat eta bazkari bat egin ondoren, ekitaldi poetiko bat edo bere olerkien aurkezpen bat eskatzen diogu. Orain arte parte hartu dutenak izan dira: Edu Zelaieta, Juanma Sarasola, Juan Ramon Makuso, Urtzi Urkizu, Oier Guillan eta Idoia Beratarbide.

HATSAREN balorazioa Nafar poesiaren biltzarraz

Adixkide olerkaria,

Iragan larunbatean, ekainaren 3an, Nafar Poesiaren I. Biltzarra, Iruñean den Nafarroako Artxibategi Orokorreko egoitzan, lehen aldikotz, euskaraz eta gaztelaniaz, iragan da.

Erdarazko kultur alorrean Nafarroa osoan ezagutua den *Ateneo* elkarteak parteideek “HATSA” elkarteak gomiatuak gintuzten.

Gizarte guzietan paraleloki idazten dituzten literatura ezberdin oroen erdian, poesiaren eremua, genero unibertsal batentzat hartzen dugulakotz, potere eta politika guztiak abstrazio batean utzi ondoren, gomita onartu dugu.

Goizean, biltzarra, olerkaria eta *Ateneo*ko arduraduna den *José Luis Allo*-k ideki zuen bere laguntzeko zituelarik bai *Consuelo Allúe*, filologoa, bai *Bélen Galindo* berriketaria. *Tomás Yerro*, Literatur katedradunak, Nafarroako oraiko poesiaren ikuspegi zabal bat eman ondoren, “HATSA” elkartearen esperientziaren ikuspegitik ere euskal olerkariaren sorkuntzaren ispilu bat emana izan zen.

Literatura aldizkariak aurkeztuz, *Juankar Mugartzak*, “HATSA” talde kulturarentzat, *Joxemiel Bidador*rek, “HEGATS” Euskal Idazleen Elkartearentzat, *Josu Jimenez-Maiak*, “HARBELEX” talde poetikoarentzat, azpimarratu zuten Nafarroako olerki idazleak eta bertze euskal lurraldekoen artean ez zela bereizterik, euskalkien haraindian, oraiko agerkerietan, nortasun kultural batekin baizik ez zirela agertzen.

Kartageneko *Jose Maria Alvarez* olerkariak bere “Museo de cera” ‘ezkozko museoaren’ poesia “nunbait urtu zigun”, ziolarik, besteak beste, destinoa onartu behar

ginuela, gure hitzaren ordainketa bat bezala: “Acepta tu destino como el precio de tu palabra”.

Arratsaldean, *Javier Asiain* eta *Santi Elso* olerkariak bi mahain inguru, lehena editore, liburu-saltzale, bibliotekariakin, beste bat literario lehiaketa batzuen bultzazaleekin, animatu zituzten eta bururatzeko poetiko errezitaldi bat, nahi zuten irakurle guzietara zabaldua zena, iragan zen arrakasta haundi batekin.

“HATSA”ren urteko olerki bilduman parte hartzen duten gehiengoari (bederen Interneta duten guzietara), dakizuenez, ekitaldi hortaz berri emana genuen, erranez, “HATSA elkartea gomitatua izanez geroz, nahi zuenak, arratsaldeko olerki irakurketa orokorrean parte har zezakeela”. *Juankar Lopez-Mugartza*, *Josu Jimenez-Maia*, *Amaia Lasas-Alegria*, *Mikel Taberna* eta ni azaldu ginen gure olerki bat edo biek. Nunbait gure burua galdua aurkitu dugu, bereziki, kongresuko aktore, bai entzule gehiengoak, erdaraduna zelakotz, baina batere ez baztertua. Oxala olerkizale gehiengoak dakike amarrurik gabe besteen sentsibilitatea errespetatzen! Hala ere, “quidam” batek azaldu zigun “couac” edo arrangura bat, sobera eskubide olerki irakurtzeko hartu ginuela gaizetsiz, baina beste guzietara lasai eta baikor egon ziren gure entzuten...

Amaia Lasak, bere bigarren olerkia irakurtzen hasten zuen momentuan, Kongresuko arduradun bat kontrajartu zitzaion, liskar bat sortuz. Jakin dugu geroztik, eta arrazoin ematen diogu, Amaiak gertakizun horretaz, prentsan, bere ikuspuntu pertsonal bat agertuko duela.

Nafarroako Lehen Poesia Kongresu honetaz ze erakaspen ateratu? Orokorki, pentsatzen dugu, nahiz euskaraduna ez izan, ikusle-entzulegoak, hala ere, gure presentzia ontzat hartu duela. (Egia erran, geuk egin erdarazko itzulpenekin, geure ulertzea erraztua genien. Alderantziz ez zen kantu bera!)

Iduritzen zaigu datorren urteetan oraino gertakizun hau errepikatu behar litaikela, beharbada beste modu desberdin batez, nunbait olerkien irakurketak, idatzitako mintzaireretan atxikiz, baina hizkuntza batek bestea ez dezan jan, kongresuko idatzi eta erran guzietara bi hizkuntzetan espresatzea behar beharrezkoa litezkeela sentitzen dugu!

Hatsa elkartearentzat, *Auxin Zamora*

Nafar Poesiaren I. Biltzarra eta Euskara

Nafar euskaldunak ia ikustezinak gara nafar erdalduentzat. Euskararen mundua ez da libreki garatzen ukatua izaten delako anitzetan (adibidez, nafar literaturari buruzko lan erraldoietan). Geure-geureak ditugun tradizioak kolonizazio baten ondorio direla entzuten da maiz. Gauza bera gertatzen da euskararekin eta bere poesiarekin. Kalitate handikoa bera. Oso maila gorenekoa. Nafar anitzentzat, sinpleki, ez da existitzen.

Asko dira beren etxean arrotz sentitzen direnak. Hori dela eta, euskaldunok geure gordeleku eta esparru propioak eraiki behar izan ditugu, nahi eta nahi ez. Beraz,

eskertzekoa da Nafarroa Garaiko erdal poetek euskal poetei luzatu zieten gonbidapena. Ildo beretik, ulertzekoa da euskal poeten motibazio falta biltzar hartara joateko.

Euskaldunok erdaldunei buruz informazio nahikoa dugu; haiek, aldiz, informazio gutxi dute euskaldunei buruz. Erdaldunen artean lan pedagogikoa egin behar da, euskararentzat berarentzat gutziz beharrezkoa baita. Euskarari lekua egin behar zaiola erabakitzen denean, urrats garrantzitsu bat emanda dago eta erabakia hartu duenari eskertu eta bide horretan barneratzen lagundu behar zaio.

Nafar olerkari batek euskaraz idazten duenean ez du nafarrentzat idazten, euskaldunentzat baizik. Nafar olerkari batek gaztelaniaz idazten duenean ez du, adibidez, baxenabartarrentzat idazten, gaztelaniaren hizkuntz komunitatearentzat baizik. Bestalde, izan badira frantsesez aritzen diren nafar poetak. Nafarroa Beherean. Hala eta gutziz ere, Nafar Poesiaren I. Biltzarrean frantsesez ari zen poetarik ez zen egon. Honen erakusten du euskaldunek eta erdaldunek Nafarroaz duten ikuspegi ezberdina.

Nafarroako euskal poetek Euskal Herri osoko poetekin dute harremana; komunitate horretako partaideak dira. Beren burua “euskal poetatzat” jotzen dute. Hizkuntza da garrantzitsuena, eta ez geografia. Horregatik, Nafar Poesiaren Biltzarrera HATSAREN bitartez euskaldunak deituak izan zirenean, euskaldun guztiak gonbidatuak izan ziren, eta ez Nafarroa Garaian jaiok zirenak soilik. Baldintza horrekin joan ziren lehenengo biltzarrera eta, izan ere, Nafarroan argitaratzen ez den aldizkari batek euskal poeta nafarren izenean hitz egin zuen. Izan ere, Auxtin Zamoraren hitzetan «beharbada HATSA ez ginuke leku geografiko batean kokatu behar baizik bizidunen baitan».

Askoren iritzi Nafar Poesiaren Biltzara ez da inoiz euskaldunen biltzara izanen, askoz ere gutxiago euskaldunen besta. HATSAREN POESIAREN egunekoa da haien-tzat besta bakarra. Hala ere, honelaxeko ekitaldietan parte hartzean, erdaldun euskaltzaleei laguntza ematen diegu gure hizkuntza maitatzen segi dezaten. Eta euskarra batere maite ez dutenei begira, gure presentzia bera ere garrantzi handikoa da, gu han egonik argi eta garbi erakusten baita Nafarroa euskararena ere badela. Egitate hori begien bistan ezartzen diegu.

Iazko deialdiari baiezkkoa eman ziotenek beren lana bete zuten duintasun osoz: Auxtin Zamorarekin batera, Joxemiel Bidador, Josu Jimenez Maia, Amaia Lasa Alegria, Mikel Taberna eta Juankar Lopez-Mugartza. Auxtin Zamorak HATSAREN POESIAREN nondik norakoak aipatu zituen eta neronek aldizkari honen zenbait datu eman ere bai. Joxemiel Bidadorrek Euskal Idazleen Elkarteari (EIE) egindako gonbiteari erantzunez HEGATS aldizkariaren berri eman zuen eta, honetaz gainera, euskal aldizkari literarioen inguruan aritu zen maisuki (biltzarreko aktak argitaratu arte itxoin beharko dugu testu osoa irakurtzeko). Josu Jimenez Maia aritu zen talderik edota beren olerkiak argitaratzeko aldizkaririk ez duten poeten izenean, bereziki, Nafarroako euskal poeta ikusezinen izenean.

Josu Jimenez Maia olerkariak alegiazko HARBELEX poesi talde baten izenean hitzaldia egin zuen. Berari egokitu zitzaion, gure gizartearen metafora balitz bezala, existitzen ez den talde baten izenean hitz egin, askotan ixiltzen den kultura baten

adierazgarri bezala. HARBELEX Akitaniako jainko baten izena da, erromatarrak Euskal Herrira iritsi ziren garaikoa. Ez dakigu noren edo zeren jainkoa zen. Beraz, amets egiteko eskubidea dugu. Arbelaren jainkoa izan zitekeen agian, eta, ondorioz, ikastearena, idaztearena, euskal poetena orduan, arbelean kleraz edo klarionaz eta paperean lumaz idazten dutenena¹. Josu Jimenez Maiak euskal jainko zahar horren ageriko gurtzari ekin zion, erakusteko naturaz gaindiko indarra behar dela Nafarroan euskaraz bizi ahal eta euskal poeta izateko.

Euskarari begirunea zor

Nafar gizarteko erakundeetan begirune gutxi izan ohi zaio euskarari, baina hori ez da errepikatu behar poeten biltzarretan. Iaz, errezitaldi saioan gertatu zena begirune falta horren adibidea dugu eta ez da, ez, nire iritziz, oso bide egokia euskaldunak biltzar hauetara erakartzeko. Errezitaldi saioa luzeegi jotzen ari omen zen eta arduraduna berantetsita zegoen Jose Maria Alvarez poeta espainiarra, “Novisimos²” talde poetikoaren adierazgarririk onena, zain zuelako.

Euskal poetak oholtzara igo zirenean, eguneko estakuru bakarra sortu zen. Amaia Lasa Alegríak olerkari euskaldunen txandari hasiera emanez, bere olerkiaren errezi-tatzeari ekin zion. Halako batean, Amaiak ixilune txiki bat egin zuen –olerkiak ixilu-nea ezinbestekoa zuelako–, eta ixilaldiaren ondoren poema erreziatzen jarraitu nahi izan zuelarik, saioa gidatzen zuena altxatu zen garraxi eginez eta ixiltzeko erranez, aski eta sobera omen zuela olerki bat irakurrita.

Biltzarraren itxiera ekitaldiaren ondoren, antolatzaileek Amaia Lasarengana jo zuten barkamena eske, baina kaltea egina zegoen. Kasualitatea izan zitekeen (antola-tzaile urduria desenkusutzen zen bezala), baina itsuskeria euskaldun bati egina zi-tzaion eta ez erdaldun bati, emakume bati eta ez gizon bati, Amaiak gogoratzen zuen bezala. Euskarari begirunea zor zaio. Leku duina eman behar zaio. Gorago aipatu lan pedagogikoa ez dago oraindik guztiz egina, bistan denez.

HATSAREN poesiaren idazleak eta Nafarroa

Hona hemen Nafarroarekin (Garaia, nahiz Beherea) lotura estua duten olerkari ba-tzuen izenak, biltzarrean parte hartu zutenak bazter utzita: Aurelia Arkotxa, Itxaro

1. Talde pedagogiko baten izena izan zen HARBELEX (Pamplona se dice Iruñea, 1987)

2. “Novisimos” poesi taldeak Jose Maria Castellet literatur kritikoari zor dio izena, berak apailatutako antologia batean (Nueve novísimos poetas españoles, Bartzelona 1970) hamarkada hartako poeta espainiar gazteenak eta berritzaileenak bildu baitzituen. Haien artean Jose Maria Alvarez, Nafar Poesiaren I. Biltzarrera gonbidatu zuten Cartagenako (Murztzia) poeta.

Borda, Luzien Etxezaharreta, Joakin Balentzia Tirapu, Jakes Ahamendaburu, Piarres Aintziart, Amaia Amilibia, Eñaut Etxamendi, Josetxo Azkona, “Jaso” ikastolako “Carpe Diem” taldea, “Biurdana” ikastetxeko ikasleak, Igantziko Eskolako haurrak, Hasier Larretxea, Beñardo Goietxe, Bego Zestau, Inma Zestau, Koldo Ameztói, Edu Zelaieta, Klemen Irigoien, Xabier Soubelet, Castillo Suarez, Angel Garcia Etxandi, Jabi Telletxea Gago, Manex Lanatua, Marijane Minaberri, etab.

Auxtín Zamorak gogoratzen digun bezala: «segur beste asko baliezkela! Denbora hartu behar litaike ikerketa zabal baten egiteko...». Dena den, datu hauek gogoan izanik eta Nafarroan euskarazko aldizkari poetikorik ez dagoela kontuan harturik, argi eta garbi nabaritzen da HATSAREN POESIA nafarren aldizkaria izateaz gainera, KORROK desagertu zenetik nafar poesiaren aldizkari bakarra dela. *Nafar oro obligatu iagoitkoz hargana, ceren oray çuc baytuçu estimatzen goratzen eta ohoratzen heuscara.*

HATSAREN poesiaren zerrenda

Ondoko segidan HATSAREN POESIAN idatzi duten idazleen izenak zerrendatzen dira. Goiko lerroan 1etik 8ra sailkatuta aldizkariaren zenbakiak aipatzen dira, 1999 urtetik 2006ra. Orobat, azken zutabea idazleek zenbat urtetan parte hartu duten adierazten da. Oro har, 165 idazlek parte hartu dute aldizkaria sortu zenetik (Juanma Sarasolak euskarara itzuli dituen egile atzerritarren izenak kontuan harturik). Idazle horietatik 105 gizonezkoak dira eta 60 emakume. Haiekin batera 8 talde aritu dira: “Gu” ezizenaren azpian HATSAREN POESIAren bestara hurbildu direnen talde lana biltzen da, olerkari anitzen arteko poemak Bego Zestau Leitzako olerkariaren eskutik bilduak. Talde honekin batera beste zazpi ikastetxek parte hartu dute: Bernat Etxepare Lizeoa (2004tik aurrera), Donibane Lohizuneko Ikastola (2002), Igantziko Eskola (2006), Itsasuko S. Joseph Eskola (2000), Iruñeko Jaso Ikastolako “Carpe Diem” poesi taldea (2006), Senpereko Zaldubi Ikastola (hau hasiera-hasieratik, 1999tik) eta Uztaritzeko Louis Dassance Ikastola (2003tik aurrera).

Osozara, banakakoak eta taldeak kontuan harturik, 173 partaide egon dira HATSAREN POESIAren historian. Denak, ordea, ez dira inoiz ere batera aritu. Izan ere, lehenengo urtean (1999an) 39 idazlek edota taldek hartu zuten parte; bigarrenean, 2000an, 51 idazlek; 61 aritu ziren 2001eko aldizkarian; 75, 2002an; 78, 2003an, 68, 2004an; 84, 2005ean; eta 103 partaide –98 idazle eta 5 eskola–, 2006an. Horra hor izen eta partaidetza guztiak:

“HATSAREN POESIA” NAFAR POESIAREN I. BILTZARREAN

Hatzaren Poesia	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	Partaidetzak
1 Abruza, Eneritz	1999	2000	2001	2002	2003	2004		2006	7
2 Agirre, Ixiar							2005	2006	2
3 Agirrebarrena, Maider					2003	2004			2
4 Agur Meabe, Miren			2001	2002	2003	2004	2005	2006	6
5 Ahamendaburu, Jakes	1999	2000	2001		2003	2004	2005		5
6 Aiaitui, Jon		2000	2001	2002	2003	2004			5
7 Aintziart, Piarres			2001	2002	2003	2004	2005	2006	6
8 Aire, Henriette	1999			2002	2003	2004		2006	5
9 Akixo, Kepa “Zigor”	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	8
10 Albizu, Daniela	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	8
11 Almeida, Naiara								2006	1
12 Ameztoi, Koldo					2003	2004	2005		3
13 Amilibia, Amaia						2004	2005		2
14 Anselmi, Luigi			2001	2002	2003	2004	2005	2006	6
15 Antz, Jakes			2001	2002	2003				3
16 Apaolaza, Eneko							2005		1
17 Apalategi-Idirin, Ur	1999								1
18 Aragon Ruano, Alvaro	1999			2002					2
19 Arano, Jon					2003				1
20 Arkotxa, Aurelia	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005		7
21 Aranburu Zumeta, Jon								2006	1
22 Arizti Pako								2006	1
23 Arregi, Rikardo		2000	2001						2
24 Arrieta, Jose Agustin	1999					2004	2005		3
25 Arrieta, Yolanda		2000				2004	2005	2006	4
26 Arrozpide, Iratxe							2005		1
27 Artze, JosAnton	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	8
28 Arzallus, Amets		2000	2001	2002	2003				4
29 Arzallus, Jexus	1999								1
30 Asurmendi, Mikel		2000	2001	2002	2003	2004			5
31 Azkarate, Karlos				2002					1
32 Azkona, Josetxo					2003	2004	2005	2006	4
33 Azpitarte, Txaber			2001	2002					2
34 Balantzategi, Ainara				2002	2003		2005	2006	4
35 Balentzia Tirapu, Joakin					2003	2004	2005	2006	4
36 Barroso, Odei								2006	1
37 Bastarrika, Iñaki			2001	2002	2003	2004	2005	2006	6
38 Beloki, Oihana								2006	1
39 Benas, Oscar							2005		1
40 Beratarbide, Idoia					2003	2004	2005	2006	4
41 Bergara, Manex	1999	2000	2001	2002	2003				5
42 Bergara, Xabaltx	1999	2000	2001	2002	2003		2005	2006	7
43 <i>Bernat Etxepare Lizeoa</i>						2004	2005	2006	3
44 Borda, Itxaro	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	8
45 Bordagarai, Alexandre								2006	1

Hatzaren Poesia	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	Partaidetzak
46 Bordagarai, Jojo								2006	1
47 Bravo, Iñaki			2001	2002	2003	2004	2005		5
48 Cano, Harkaitz				2002	2003	2004			3
49 Casenave, Jon	1999	2000	2001						3
50 Casenave-Harrigile		2000	2001	2002		2004	2005	2006	6
51 Daguerre, Oihana	1999			2002					2
52 Daguerre, Nekane				2002					1
53 Davant, J. Louis	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	8
54 <i>Donibane Lohizuneko Ikast</i>				2002	2003	2004	2005	2006	5
55 Dupouy, Marylu	1999								1
56 Eguzkitza, Andolin					2003				1
57 Elguero, Marisa <i>Itzulp</i>								2006	1
58 Elias Odriozola, Imanol					2003			2006	2
59 Escartin, Nacho <i>Itzulp</i>							2005	2006	2
60 Ezponde, Agnes			2001	2002	2003				3
61 Estankon, Igor								2006	1
62 Esteban, Karmen				2002	2003	2004	2005	2006	5
63 Etxamendi, Eñaut	1999	2000		2002	2003	2004	2005	2006	7
64 Etxekopar, Mixel					2003				1
65 Etxezaharreta, Luzien		2000		2002	2003		2005	2006	5
66 Ezkiaga-Lasa, Patxi		2000			2003				2
67 Fernandez, Oier				2002					1
68 Frutos, Usoa								2006	1
69 Galarraga, Aritz		2000	2001	2002		2004			4
70 Galarreta, Xabier								2006	1
71 Garcia Etxandi, Angel							2005		1
72 Garrido, Arantxa								2006	1
73 Gilzu, Luisa								2006	1
74 Goietxe, Bernardo								2006	1
75 Goirizelai, Kristina							2005		1
76 Goñi, Mathieu	1999								1
77 Gorroto, Mikelats		2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	7
78 Gorrotxategi, Bernardo								2006	1
79 <i>Gü (Bego Zestau)</i>			2001	2002					2
80 Guillan, Oier					2003	2004	2005	2006	4
81 Hirigoien, Arantxa	1999	2000			2003			2006	4
82 Hervada, Iñaki			2001	2002		2004			3
83 Ibañez, Ainhoa								2006	1
84 Idirin, Maite							2005		1
85 <i>Igantziako Eskola</i>								2006	1
86 Igerabide, Juan Kruz		2000	2001		2003	2004	2005	2006	6
87 Ihitza Sainz, Urtzi			2001	2002			2005	2006	4
88 Irastorza, Extrefana		2000	2001	2002	2003		2005	2006	6
89 Iratzeder, Xabier	1999	2000	2001	2002					4
90 Irigoien, Imanol			2001	2002	2003	2004	2005	2006	6

“HATSAREN POESIA” NAFAR POESIAREN I. BILTZARREAN

Hatzaren Poesia	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	Partaidetzak
91 Irigoien, Joan Mari	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	8
92 Irigoien, Klemen					2003		2005		2
93 Irosbehere, Andde								2006	1
94 <i>Itsasuko S. Josephi</i>		2000	2001	2002	2003	2004			5
95 Iturbe, Ana Isabel			2001		2003				2
96 Iturbide, Amaia		2000							1
97 Iturralde, Oier								2006	1
98 Itzaina, Xabier							2005	2006	2
99 <i>Iruñeko Jaso Ikastola</i>								2006	1
100 Iza, Urtzi		2000							1
101 Jorajuria, Peio		2000	2001	2002	2003				4
102 Korta Rekartea, Gabriel	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	8
103 Lanatua, Manex	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	8
104 Larretxea-Gortari, Hasier		2000	2001	2002	2003		2005	2006	6
105 Lasa Agirrezabal, Xabier			2001	2002					2
106 Lasa-Alegria, Amaia	1999	2000	2001		2003			2006	5
107 Lasa, Gorka				2002					1
108 Lertxundi, Junkal							2005		1
109 Lopez-Mugartza, J. Kar					2003	2004	2005	2006	4
110 Madariaga, Juan Ramon				2002	2003		2005	2006	4
111 Maia Urroz, Ainara			2001	2002	2003	2004	2005	2006	6
112 Makuso, Juan Ramon							2005	2006	2
113 Malagon, Ana							2005		1
114 Markuleta, Gerardo	1999	2000		2002		2004	2005	2006	6
115 Mendiburu, Leire	1999								1
116 Mendizabal, Elene		2000	2001						2
117 Mendizabal, Elorri								2006	1
118 Minaberry, Marijane	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	8
119 Mujika Urdangarin, L. Mari		2000	2001	2002	2003	2004			5
120 Mujika, Ainhoa							2005		1
121 Nuñez, Joana							2005		1
122 Olaeta, Juan Karlos					2003				1
123 Olarizu			2001	2002					2
124 Olaziregi-Berroet, Olhain						2004	2005	2006	3
125 Oronoz, Belen							2005	2006	2
126 Otamendi, Jose Luis	1999			2002	2003		2005	2006	5
127 Otxoteko, Pello						2004	2005	2006	3
128 Padron Plazaola, J. Luis	1999								1
129 Pascual, Xabi				2002	2003				2
130 Peillen, Txomin					2003	2004	2005	2006	4
131 Rabanal, Teresa								2006	1
132 Rezabal, Xabier							2005	2006	2
133 Rodriguez, Janire							2005	2006	2
134 Roncales, Edurne								2006	1
135 Royo, Ines							2005		1

Hatzaren Poesia	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	Partaidetzak
136 Salamero, Andoni	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	8
137 Santisteban, Karlos	1999	2000	2001	2002					4
138 Santesteban, Abbat							2005	2006	2
139 Sarasola, Asier						2004	2005	2006	3
140 Sarasola, Juanma		2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	7
141 <i>Senpereko Zaldubi Ikastola</i>	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	8
142 Solbes, Maripi		2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	7
143 Solorzano, Graxi			2001	2002	2003	2004	2005	2006	6
144 Soubelet, Xabier	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	8
145 Soudre, Jan Pier	1999		2001	2002	2003	2004	2005	2006	7
146 Suarez, Castillo					2003	2004	2005	2006	4
147 Susperregi, Iñigo								2006	1
148 Taberna, Mikel								2006	1
149 Tambourin, Marikita								2006	1
150 Telletxea Gago, Javier								2006	1
151 Thamer, Birawi Itzulp.								2006	1
152 Thicoipe, Mixel								2006	1
153 Torres, Amaia								2006	1
154 Ugarte-Zubia, Arantza				2002	2003	2004			3
155 Uribe, Kirmen		2000		2002	2003	2004	2005		5
156 Urkiza, Ana				2002		2004			2
157 Urkizu, Urtzi				2002		2004	2005	2006	4
158 <i>Ustaritz Louis Dassance</i>					2003	2004			2
159 Valencia, Josiane	1999								1
160 Zabala, Juan Luis								2006	1
161 Zaldua, Eli								2006	1
162 Zaldua, Iker							2005	2006	2
163 Zamora, Austin	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	8
164 Zaratiegi, Mikel								2006	1
165 Zelaieta, Edu			2001	2002	2003	2004	2005	2006	6
166 Zelestino, Maite						2004		2006	2
167 Zendoia, Jose Mari							2005	2006	2
168 Zestau, Bego "Trittu"		2000	2001	2002	2003	2004	2005		6
169 Zestau, Ima			2001	2002	2003	2004	2005		5
170 Zubeldia, Iñaki							2005	2006	2
171 Zubeltzu, Haritz		2000							1
172 Zubiria, Amaia	1999	2000	2001	2002	2003	2004		2006	7
173 Zumeta, Mikel		2000	2001	2002	2003				4
A <i>Idazleen kopurua urtez urte</i>	39	51	61	75	78	68	84	103	
B <i>Zenbat partaidetza gehiago urteko</i>	39	+12	+10	+14	+3	-10	+16	+19	

Idazleen kopurua urtez urte

Idazleen zerrendaren taulan erakusten denez, urtez urte parte hartzaileen kopurua igotzen ari da. Osotara 173 idazle edo poesi talde dauden arren, ez dute, jakina, denek urtero idazten eta, beraz, Auxtin Zamorak gogoratzen duenez, «2006. urtea opa-rotsua izan dugu, 98 idazlek (eta bost ikastetxek) olerki bilduma orokorrean parte hartu zuten, bai 120 gaztetxoek beste olerki liburu batean.» 98 idazle horiei 5 ikas-tetxetako haurren lanak gaineratu behar dira –euskal olerkigintzaren egiazko harro-bia–, oro har, 103 partaidetza 2006. urtean.

2004. urtea albo batera utzita –hamar partaidetza galdu baitziren–, urtez urte parte hartzaileen kopurua igotzen ari da: 39 idazle 1999an, 51 idazle 2000an, 61 idazle 2001ean, 75 idazle 2002an, 78 idazle 2003an, 68 idazle 2004an, 84 idazle 2005ean, 103 idazle eta poesi talde 2006an (ikus beherago, eranskinen atalean, 1. irudia).

Zenbaki hauen arabera 1999ko partaidetzari (39 idazleen lanak jaso zirelarik) 12 gehiago gaineratu behar zaio 2000 urtean, 10 gehiago 2001ean, 14 gehiago 2002an, 3 gehiago 2003an, 10 gutxiago 2004an, partaidetza behera joan zen urte bakarra, eta berriro 16 gehiago 2005ean eta 19 gehiago 2006an, partaidetzarik handiena izan duen urtea (ikus 2. irudia).

HATSaren poesiaren idazle berriak

1999an HATSaren POESIAren lehenengo zenbakian idatzi zuten 39 idazle funda-tzaileei beste batzuk gaineratu behar zaizkie ondoko urteetan. Honela, 2000 urtean izan ziren 51 partaidetzatik 25 lehenbiziko aldiz parte hartzen zuten idazleei zego-zkien. Zentzu honetan HATSaren POESIAren “idazle berri” izendatuko ditugu, nahiz eta horietako asko eta asko beste aldizkarietan oso ezagunak izan. Honela bada, 2001ean 61 partaidetzatik 20 idazle berriei zegozkien, 2002an 75 partaidetzatik 13, 2003an 78 partaidetzatik 16, 2004an 68 partaidetzatik 6, 2005ean 84 partaidetzatik 21 eta 2006an 103 partaidetzatik 33. Osotara, 558 partaidetza egon dira HATSaren POESIAren historia osoan eta, 2006. urtera arte, 173 idazlek hartu dute parte.

	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	Osotara
<i>Partaidetzak</i>	39	51	61	75	78	68	84	103	558
<i>Idazle berriak</i>	39	25	20	13	16	6	21	33	173

Ehunekoie dagokienez, HATSaren POESIArean parte hartu duten idazle eta talde poetiko guztiak gogoan harturik, lehenengo urteko idazleek aldizkariaren historia osoko partaideen %23 osatu zuten (39 idazle), 2000an aritu zirenek %14 (25 idazle berri), 2001koek %12 (20 idazle), 2002koek %8 (13), 2003koek %9 (16), 2004koek

%3, 2005ekoek %12 (21) eta 2006ko idazleek %19 osatu dute (33 idazle), aldizkaria sortu zeneko ehunetik hurbil. Izan ere, 1999an 39 idazle bildu ziren aldizkariarn orrialdeetara, kopuru osoaren %23, eta 2006an 33 idazle berri gaineratu ziren proiektu honi, HATSAREN POESIA sortu zenetik aldizkariak inoiz izan duen hazkunderik handiena, kopuru osoaren %19, hain zuzen ere (ikus beheago, eranskinen atalean, HATSAREN POESIAri lehen aldikoz atxiki zaizkion idazle berriei buruzko grafikoa: 3. irudia, eta, orobat, urtez urteko partaidetza honi dagozkion ehunekoak: 4. irudia).

Iparaldeko eta hegoaldeko idazleak

HATSAREN POESIA sortu zenetik Iparaldeko 48 idazlek edota taldek eta Hegoaldeko 125ek parte hartu dute. Bilakaera bitxia da, Iparaldeko aldizkaria izan arren –Senperen (Lapurdi) argitaratzen baita–, Hegoaldeko idazleek aldizkariko orrialdeak hartu dituzte, 2000. urtetik aurrera gehiengoa izanik. Izan ere, lehenengo urtean (1999) Iparaldeko idazleak nagusi baziren ere (23 idazle Iparaldeko eta 16 Hegoaldeko), ondoko urteetan Hegoaldekoak Iparaldekoak baino gehiago izan dira. Beraz, aldizkariari, alegia, aldizkariko zuzendariari ezagutu behar zaio HATSAREN POESIAren orrialdeak Euskal Herri osoko poetek zabaltzen jakin izan duela. Nolabait, Iparaldekoa zena, Euskal Herriko bilakatu du zalantzarik gabe.

Iparaldeko idazleei dagokienez, 1999an parte hartu zuten Iparaldeko 23 idazle edo talde poetikoei, Iparaldeko 4 idazle gehiago gehitu zitzaizen 2000. urtean, 6 gehiago 2001ean, 2 gehiago 2002an, 5 gehiago 2003an, 2 gehiago 2004an, beste idazle bat gehiago 2005ean, eta 5 gehiago 2006an (ikus 5. irudia).

Hegoaldeko egoerari dagokionez, 1999an hasi ziren Hegoaldeko 16 idazleei 21 gehiago gehitu zitzaizen 2000. urtean, 14 gehiago 2001ean, 11 gehiago 2002an, zenbaki bera 2003an, 4 gehiago 2004an, 20 gehiago 2005ean eta 28 gehiago 2006an.

<i>Urtea</i>	<i>Iparaldekoak</i>	<i>Hegoaldekoak</i>	<i>Osoara</i>
1999	23	16	39
2000	4	21	25
2001	6	14	20
2002	2	11	13
2003	5	11	16
2004	2	4	6
2005	1	20	21
2006	5	28	33
Osoara	48	125	173

Urtez urte zerrenda luzatzen ari da etengabe. Izan ere, badirudi eten ezinezko joera baten aurrean gaudela, 2004an goia jota zegoela ematen zuen arren (10 partaide-tza galdu baitziren), ez baita erraten ahal honezkero halaxeko egoeran gaudenik. Izan ere, prentsan dagoen 2007. urteko bilduman parte hartzeko beste idazle batzuk gaineratu dira Auxtin Zamorak aditzera eman duenez, «jadanik, olerkari berri batzuk agertu zauzku: Xabier Elizondo, Koldo Goitia, Thierry Biscarry, Janine Bidaurreta, Fito Rodriguez, Josu Jimenez Maia, Mikel Balentziaga, Rikardo Gonzalez de Durana, Azkune Mendia, Arate Egaña, Nagore Etxabe, Miren Ibarluzea, Andoni Iturrioz, Antton Kazabon, Karlos Lafond, Eukene Lizeaga, Aitor Moga, Itziar Mujika, Aitor Olaso, David Tijero, Karmen Valois, Imanol Ibaibarriaga, bai Ikastetxe zonbaitetako olerkari gazte talde berri batzuk ere (Igantzi, Etxalar, Arantza, Hondarribiako eskolak, Hendaiako ikastola, Iruñeko “Itaka” taldea).» Datu hauek kontuan harturik, argi dago euskal olerkigintzak osasun ona duela eta idazleei argitaratzeko aukera ematen zaienean idatzi idazten dutela.

Ehunekoak kontuan hartzen baditugu (ikus 6. irudia) Iparraldeko idazleek guztizkoaren %28 osatzen dute 48 baitira. Hegoaldekoek, aldiz, %72 osatzen dute 125 baitira (Juanma Sarasolak itzulitako idazle atzerritarrek kontuan harturik). Ageri denez, HATSAREN POESIAren lau idazleetarik hiru Hegoaldekoak dira, hasiera batean (1999an) Iparraldeko idazleak %59 izanik, Hegoaldekoak %41 baizik ez zelarik (ikus 7. irudia).

Gizonen eta emakumeen lekua HATSAREN POESIAN

Aldizkariaren historian 105 gizonak eta 60 emakumeak parte hartu dute (ik. 8. irudia); hau da, %64 gizonak dira eta %36 emakumeak (ik. 9. irudia). Gizonak emakumeak baino gehiago diren arren, 2006ko udazkenean HATSA Elkarteak antolatzen duen “Maite ditugun olerkariak” sailean emakumeak izan dira nagusi. Izan ere, 2006-2007 ikasturte honen hasieran Belen Oronoz, “Bihotzeko olerkiak” ekitaldiaren aurkezpenean adierazi zuen bezala: “Bi urte hautan HATSA elkarteak antolatzen duen «Maite ditugun olerkariak» deitu poetiko saila aintzina doa, iragan Urriaren 28an Belen Oronoz zelarik bere idazle gomitatua.” Orobat, Ainara Maia Urrozek, Irungo olerkariak, sail berean parte hartu du “Ainararen hegalkadak” izenburuko saioarekin.

Belen Oronozen lanari buruz Auxtin Zamorak hauxe dio: “Gure barneko sentimenak, azkarki eta finki higiarazten dizkigun olerkari bat dugu: Belen, bizi konkretuan, Hondarrabiarra, euskal kantugintza berriaren ikertzailea, filologoa, euskararen erakaslea; aldiz, poesia munduan bere nortasun ezpirituala, espazio tenporalitatean, inguma baten errealitatean murgiltzen da, bizi duen momento bakotxa, ezin eskuen artean atxiki litekeen idatzitako elikai infinito bat dirudielarik. Maiz izarren artean, hutsune infinitoaren ixiltasunaren aztertzaile, hala ere, paradoxian sartuz, oraiקותasunak sortzen dituen momentuan momentuko galdera eta orroek erraictaraino galdez-

katzen dute: Belen! Inmaterialtasunaren bidetan barna, bere poesiak, gizakien griñak deramazki, beharbada, biziaren zama, soportatzen eta ulertzen zail zaiolakotz”.

Ainara Maia Urroz olerkariaren gonbiteari buruz hauxe da Auxtin Zamorak idatzi ziguna: “arratsaldean, Oxtikeneko barne freskoan, Ainararen olerkiak, hegazti xuribeltz batzu bezala, josteko hari baten gainean dilindan, hegaldatzeko prest, gure zain zeuden Airezko bideetan 30 urtez Ainarak bildu poemak entzun gintuen bai eta ere Lord Byron, Arthur Rimbaud, Georges Moustaki, Françoise Hardy, Xabier Lete, Rainer Maria Rielke olerkariaren idatzi batzu ere. Bakartasunaren haize hotza... hatsa moztu arte ufatzen diren ukabilkada gordeak... Ainararen hegalkadek badute sofri-duraren eite frango, Bestearen beharra, bainan bidean: nehor ez ageri! Poesiaren idaztea sosegu litzaioke bainan dio ere, zailena dela: «poeta izaita». Ainarak iluntasuna nabarmentzen balin badu, hala ere, bere etorkizunarentzat ez du amore eman nahi, dakielakotz bere biziak esnearen xuria ere daukala”.

Ildo beretik, HATSA Elkarteak Bego Zestau “Tittu” olerkari leitzarraren *Sabeleko dantza* poesia liburua argitaratu du, bai eta kritikaren soa jaso ere (Jon Kortazar, *El País, País Vasco*, 2002-12-30): “Zestauk hitz jokoa maite du, eta paralelismoetan, esaldien errepikapenetan gauzatzen du bere poesiaren zioa.” Eta egunkari berean (ibid., 2003-5-19): “Nitasunaren poesia zuzena da *Sabeleko dantza* honek adierazten duena, noizbait nerabea, eta agerikoa, nitasunak jartzen dizkio mugak eta erromantizismo urrun batek tonua. (...) Mundua hasi eta buka egiten da. Eta erotismo xuabe batek isurtzen du bere joera. Eta hitza berriro nagusitzen da. Eta ez dakit esaldiaren oparotasunak ez ote duen bertsolaritzarekin lotzen espresio molde hau. *Ontto* hitza aitzakia da esaldiaren joan etorria adierazteko. Baina zalantzan naiz hauek ote diren hitzaren oparotasunaren garaiak. Lehen poema liburua da eta aspaldi agertzen denez, euskara, hizkuntza poetikoa hizkera malgua da poetaren eskuetan.”

Hauexek dira HATSAREN POESIAN idatzi duten 60 emakumeren izenak eta aldizkariaren orrialdeetara bildu diren lehenengo urtea (Juanma Sarasolak itzulitako olerkari atzerritarak barne harturik): Agirre, Ixiar (2005); Agirrebarrena, Maider (2003); Agur Meabe, Miren (2001); Aire, Henriette (1999); Albizu, Daniela (1999); Almeida, Naiara (2006); Amilibia, Amaia (2004); Arkotxa, Aurelia (1999); Arrieta, Yolanda (2000); Arrozpide, Iratxe (2005); Balantzategi, Ainara (2002); Beloki, Oihana (2006); Beratarbide, Idoia (2003); Borda, Itxaro (1999); Daguerre, Oihana (1999); Daguerre, Nekane (2002); Dupouy, Marylu (1999); Elguero, Marisa (2006); Esteban Ramirez, Karmen (2002); Ezponde, Agnes (2001); Frutos, Usoa (2006); Garrido, Arantxa (2006); Gilzu, Luisa (2006); Goirizelai, Kristina (2005); Hirigoien, Arantxa (1999); Ibañez, Ainhoa (2006); Idirin, Maite (2005); Irastorza, Extefana (2000); Irigoien-Almandoz, Klemen (2003); Iturbe, Ana Isabel (2001); Iturbide, Amaia (2000); Lasa-Alegria, Amaia (1999); Lertxundi, Junkal (2005); Maia Urroz, Ainara (2001); Malagon, Ana (2005); Mendiburu, Leire (1999); Mendizabal, Elene (2000); Mendizabal, Elorri (2006); Minaberry, Marijane (1999); Mujika, Ainhoa (2005); Nuñez, Joana (2005); Olaziregi-Berroet, Olhain (2004); Oronoz, Belen (2005); Rabanal, Teresa (2006); Rodriguez, Janire (2005); Roncales, Edurne (2006); Royo, Ines (2005); Sol-

bes, Maripi (2000); Solorzano, Graxi (2001); Suarez, Castillo (2003); Tambourin, Marikita (2006); Torres, Amaia (2006); Ugarte-Zubia, Arantzazu (2002); Urkiza, Ana (2002); Valencia, Josiane (1999); Zaldúa, Eli (2006); Zelestino, Maite (2004); Zestau, Bego “Tittu” (2000); Zestau, Ima (2001) eta Zubiria, Amaia (1999).

HATSAREN POESIA, euskal olerkigintzaren harrobia

Oxtikeneako HATSA Elkartea olerkigintzaren alde egiten ari den lana eskerga da oso. Kritikoen harridura ekarri du, inoiz egin den poesiaren zabalkunde lanik handiena egin baitu HATSAk; esate baterako, Kortazarrek berak Auxtin Zamoraren lana goraiatzeko eta bere zabalkunde lana, artisau batena dirudiena, ederretsi ere bai (ib. 2002-12-30): “Baina artisautzak bere keinurik handiena Auxtin Zamorak Senperen aurrera daraman ekoizpenean nabari da. Liburuak eskuz eginak baitira, zabalkunde urri bati atxikiak. Hiru liburu eman du argitara, Zamora beraren *Trapuetan haizea*, Joakin Balentziaren *Egunkari eskutua* eta Bego Zestauren *Sabeleko dantza*. Hiru liburuak desberdinak asmoetan eta bide estetikoetan, Zamorak eta Balentziak giro gordinaren hausnarketa eta distira ekartzen dizkigute, poesia ia zuzenean, poema liburu baino gehiago poema bilketa diren horietan. Bego Zestau poeta berria dugu gure poesiaren alorrean (...)”.

Liburuak eta aldizkaria argitaratzeaz gainera, olerkigintzarako zaletasuna haurrengan sortzen ahalegintzen da HATSA Elkartea, bere zuzendari Auxtin Zamoraren arduraren pedagogikoari erantzunez. Zentzu honetan erran daiteke HATSA Elkartea etorkizuneko euskal olerkigintzaren harrobia dela. Olerkari gazteak ohituta daude, hasiera-hasieratik, ospe handiko olerkarien itzalpean idazten. Haien olerkiak eta idazle ospatuenak orrialde beretan daude jasoak, guztiei garrantzi berbera emanez.

Jakina, arriskuz beteriko apustua da hau, baten batek esan bailezake nahas-mahas agertzen direla batzuen eta besteen lanak, aldizkariaren orrialdeen kalitatea aldarokorra dela nork idazten duen arabera, batzuk poetak direla, beste batzuk poetak izan ere omen direla edo poetak izan nahi dutela, edo beren buruak poetatzat jotzen poesiarako dohainik ukan gabe edo behar den adinik edota heldutasunik izan gabe. Kritikoen filiak eta fobiak alde batera utzita –gizakiak baitira–, argi dago HATSAk asmatu duela bere aukerarekin. Ez du batere hautu txarra egin. Bestela ez litzateke erraz ulertuko zergatik poetarik sonatuenekin poeta ezezagunekin, hasi berrieekin edota poeta gaztetxoekin idatzi nahi duten. Haien kalterako balitz, antolabide txarra balitz, poeta garrantzitsuenek ez lukete idatziko umeeekin edo poeta omen direnekin batera. Horra hor Auxtin Zamoraren arrakastaren kokka.


Bertzalde, ikasle gaztetxoek lanak hainbat eta hainbat izanik (Mathieu Goñik hamar urte zituelarik idatzi zuen lehenengo zenbakian; beste haur bat, Senpereko Olhain Olaziregi-Berroet 1994an jaio zen), olerki bilduma berezietan hasi dira argitaratzen umeen lanak. Liburu horietan ondoko ikastetxeek parte hartu dute: Tolosako «Laskorain» Ikastola, «Hirukide Eskolapioa», «Orixe» Ikastetxea, Oñatiko «Elkar

hezi» Ikastetxea, Baionako «Bernat Etxepare» Lizeoa, Iruñeko «Biurdana » Instituta eta «Jaso» Ikastola. Guzietara 120 bat ikasle. Liburuaren sar-hitzak, Jose Angel Irigarai, Iñaki Basterrika eta Antxiñe Mendizabal idazleenak dira. Honela, Iparraldeko eta Hegoaldeko ikastetxeek parte hartzen dute HATSAREN proiektuan eta hauek asko, lehen aldiz bildu dira aldizkariaren orrialdeetara eta laguntza ematen diete jada aritzen zirenen ikastetxeei: *Bernat Etxepare Lizeoa, Donibane Lohizuneko Ikastola, Igantziko Eskola, Itsasuko S. Josepe Eskola, Iruñeko Jaso Ikastola, Senpereko Zaldubi Ikastola eta Uztaritzeko Louis Dassance ikastola.*

HATSAK bide luzea du oraindik ibiltzeko olerkigintzaren munduan, baina hasiera eman baino askoz ere gehiago egin du dagoeneko: bidea erakutsi digu eta aintzina egiten lagundu ere bai. Halakotz, betegintzarretan ezarri baitu lan hura, burura behar du erramu-boneta.


Grafikoak eta irudiak

1. irudia
HATSAREN POESIAN parte hartzaileen kopurua urtez urte




2. irudia

Zenbat partaidetza gehiágo urte bakoitzeko




3. irudia

HATSAREN POESIARI lehen aldikoz atxiki zaizkion idazleak urtez urte




4. irudia

HATSaren POESIAri lehen aldikoz atxiki zaizkion idazleen ehunekoa urteka




5. irudia

Iparraldeko eta Hegoaldeko idazleen kopurua eta urtez urte gehitu direnak




	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006
Iparralde	23	+4	+6	+2	+5	+2	+1	+5
	23	27	33	35	40	42	43	48
Hegoalde	16	+21	+14	+11	+11	+4	+20	+28
	16	37	51	62	73	77	97	125


6. irudia
Iparraldeko eta Hegoaldeko idazleak osotara
(2006ko datuak)




7. irudia
Iparraldeko eta Hegoaldeko idazleak HATSAREN POESIAREN
1. ZENBAKIAN (1999)



8. irudia
Gizonen eta emakumeen kopurua zenbaki absolutuetan



9. irudia
Gizonen eta emakumeen kopurua ehunekoetan



Résumé

En premier lieu, nous voulons remercier de tout cœur, tous les responsables qui ont œuvré à l'organisation de ce congrès, consacré à mettre en exergue le monde de la poésie en Navarre. Il est certain qu'une telle organisation demande beaucoup de travail, surtout pour faire converger tant de protagonistes, en un même lieu et en un même moment. Merci donc à vous tous. Il nous est demandé, quelque part, aujourd'hui, de

parler de la situation de la poésie dans le monde basque. Vaste question à laquelle nous n'avons pas la prétention de pouvoir répondre, car nous pensons, que personne ne soit capable de savoir mesurer sociologiquement un domaine poétique, qu'il n'y a pas non plus de microscope ni de critères qui puissent traduire en une réalité objective, ce que les poètes créent avec tant de subjectivité, nous n'effleurons donc le sujet que de très loin, par le biais de l'expérience vécue par l'association culturelle “Hatsa” qui s'est investie depuis 8 ans dans le domaine de la poésie écrite en basque.

Le premier fondement de l'Association se base sur l'exemple de l'action physiologique de la respiration. De même que lorsque nous respirons, nous prélevons notre oxygène, au milieu d'une masse d'air qui appartient à tout le monde, cet oxygène, qu'on le veuille ou non nous le restituons à nouveau, à la masse d'air d'où il provient, mais, en même temps nous lui ajoutons, quelque chose de personnel qui est au fond de nous même, une humidité fine et dissimulée que nous appelons: haleine. De la même façon, les mots, les sentiments, les pensées qui appartiennent à notre société, nous les renvoyons à l'endroit d'où ils proviennent, à notre patrimoine, en les augmentant, de quelque chose de créatif qui est la poésie.

Le second fondement de l'Association se base sur le fait que les poèmes écrits doivent trouver une place publique quelque part. Chaque auteur de poème a quelque chose de personnellement important à dire. Pour nous, ceux ne sont pas leurs formulations “bien dans les règles de l'écriture” qu'il est nécessaire de prendre le plus en considération, mais bien leurs maux de ventre, leurs pensées et tout ce qu'ils vivent profondément. Pour cette raison nous voudrions que chaque auteur de poèmes, quel qu'il soit (grand'mère, grand'père, enfant, adulte, personne connue ou inconnue), puisse, au milieu de la société, trouver un livre pour publier les échos de son vécu.

Le troisième fondement se base sur le fait que nous ne voulons pas entrer dans le système commercial. Rares sont les poètes qui puissent vivre de leurs livres (je crois qu'il n'y en a aucun parmi les poètes basques). Il n'est pas normal que des éditeurs puissent vivre sur le dos d'une poésie écrite gratuitement. Nous éditons suivant les aides qu'on nous donne. Si pour une édition nous obtenons 1000 Euros, nous imprimons pour 1000 euros de livre. La plupart de nos livres sont distribués gratuitement dans les Bibliothèques du Pays Basque, car nous savons bien qu'il n'est pas facile à un amateur de poésie de pouvoir pécunièrement acheter tous les livres de poèmes vendus dans les librairies.

D'une manière explicite cependant, nous ne voulons pas entrer dans le domaine des pleurs et des plaintes, nous sommes certains que globalement, en basque comme dans les autres langues du monde, la poésie se trouve au coin de la rue, à la campagne, ou, n'importe où, car elle fait partie, tout comme le pain quotidien, de l'instinct de survie, de toute société humaine. Si, dans le passé, en Navarre comme dans les autres espaces basques, elle s'exprimait oralement, à l'heure actuelle elle est devenue de plus en plus écrite. Car depuis surtout ces 40 dernières années, nos enfants, qui, par principe pour nous, seraient tous des poètes potentiels, sont alphabétisés dans leur langue maternelle, alors qu'auparavant ils ne l'étaient pas, et, les adultes qui écrivent la poésie d'aujourd'hui, sont eux aussi de moins en moins sous l'emprise d'une normalisation moraliste ou idéologique invalidante. En basque comme dans toutes les autres langues toutes sortes de poésies s'écrivent: sociales, philosophiques, intimistes, populaires, in-

tellecuelles, etc. En basque aussi les poètes ont rendez-vous avec les références idéalistes de la ‘Poïetikos’ d’Aristote, où celles philosophiques, exposées par Heideger dans son livre “l’origine de l’oeuvre de l’Art”, mais en ce moment, il nous semble que les poètes basques de maintenant, veulent plutôt, sans formalisme ni tabou, exprimer comme jamais auparavant, que la liberté, sous toutes ses formes, est la meilleur définition de la poésie. Et, si à l’heure actuelle, l’écho de cette volonté de liberté totale ne transparait pas dans la littérature générale, nous sommes persuadés qu’elle est en train de se développer dans l’ombre, à preuve, les 98 écrivains et les 200 enfants et jeunes qui ont, ensemble, cette année, participé, sans aucun critère de choix, à faire paraître leur recueil de poésie. Parmi ceux la nous pouvons citer, puisque nous sommes en Navarre: JuanKar Mugarza, Joakin Balentzia Tirapu, Asier Larretxea, Amaia Amilibia, les jeunes poètes de “Biurdana”, ou ceux de “Jaso” et j’en oublie d’autres certainement.

Après cette note optimiste je n’irai pas plus loin. Merci de m’avoir écouté. je finirai quand même par ces quelques mots:

Ne laissons pas écouler ce jour, demain il sera trop tard, la terre aura fait une révolution et nous ne nous souviendrons plus, combien les rayons de soleil de ce jour pouvaient être émouvants. Écrivons et crions que la beauté et les sentiments sont beaucoup plus forts que les toits de nos maisons, nos belles voitures ou les quantités d’argent de nos banques... Les poètes seuls savent encore regarder le soleil, ils tamisent au travers de leurs cris célestes ou infernaux, les sentiments égocentriques ainsi que les refrains fastidieux des gérontocrates qui dorment à l’ombre de forêts calcifiés. Leurs paroles qu’ils soient les premières ou les dernières, ne seront jamais plus répétées car elles n’auront plus de synonymes. Afin que la réalité ne meure, seulement les paroles qui bougent et dansent peuvent saluer la vie. Écouter les cris qui sortent des poèmes et regarder le soleil: voilà: la poésie.

Résumé historique

1989. Création de “Hatsa “, association culturelle dont l’objectif au départ était “la connaissance de soi par l’expression artistique et la Poésie”.

1999. Conscient de la valeur importante qu’avait la poésie dans le monde basque, et aussi, nous rendant compte de sa dépréciation générale par rapport à celles exprimées en des langues majoritaires, nous avons décidé de nous adonner entièrement à la Poésie écrite en Basque. Depuis chaque année nous publions un recueil de poésies dont les auteurs viennent de tous les horizons.

2002. Nous avons ouvert une nouvelle collection de poèmes écrits en basque qui paraît annuellement avec les jeunes étudiants de tous le Pays Basque.

2005. Début de “Maïte ditugun olerkariak”. Tous le derniers samedi du mois invitation d’un poète avec qui on passe la journée.